



OROZKOKO UDALA

PRENTSA OHARRA

Ione Basterra omenduko du XXII. Bizkaiko Paracycling Birak

- ***Uztailaren 4an antolatuko da Orozkon eta bi zirkuitu izango dira udalerrian: bata hirikoa, handbiken eta trizikloen ibilbiderako, Zubiaur kaletik eta ingurabidetik, eta bestea bizikleta eta tandem erloju kontrako proba, Zubiaur abiapuntu eta helmuga izango duena.***

Orozkon, 2021eko ekainaren 2an.- Uztailaren 3an eta 4an antolatuko da XXII. Bizkaiko Paracycling Bira, nazioarteko proba (*European Cup*) dena eta, aurtan, **Ione Basterra** Saiatu Fundaziokoko **paraziklista orozkoarra izandakoari omenaldia egingo diona**. Proba hau Saiatuk antolatuko du, Udalaren eta Orozkoko Txirrindularitzaren laguntzarekin.

Nazioarteko paraziklismo egutegiko probarik beteranoena da Bira. COVID-19ak 2020ko edizioa bertan behera utzi ondoren, 2021eko txapelketa honek aurreko urteetako ilusio bera dakar. 2021eko Izan ere, Tokioko paraolimpiaden aurreko nazioarteko azken proba izango da; beraz, **udalerrian munduko paraziklistarik onenak izatea espero da**.

Lau paraziklismo modalitateak jokatuko dira (bizikleta, tandem, handbike eta trizikloa) eta bi etapa izango ditu: lehenengoa Elorrio-Elorrio uztailaren 3an, eta bigarrena, uztailaren 4an, Orozkon. **Bi zirkuitu** izango dira Orozkon, bata hirikoa, handbiken eta trizikloen ibilbiderako, Zubiaur kaletik eta ingurabidetik, eta bestea bizikleta eta tandem erloju kontrako proba, Zubiaur abiapuntu eta helmuga izango duena.

Lasterketa gauzatu baino lehen, proba honek trafikoan izango duen eraginaren berri emango zaie herritarrei, baita izan horiek ditzaketan trafiko irtenbideen berri ere.

Hilaren 4an **boluntario gisa parte hartu** nahi izanez gero, helbide honetara idazteko aukera dago: administrazioa.orozko@bizkaia.org.